



Arartekoaren 2016NI-1882-15 Ebazpena, 2016ko otsailaren 25ekoa, Arte Ederren jauregiaren osotasuna bermatzeko kultura ondarearen defentsan eskumenak dituzten administrazioen esku-hartzeari buruzkoa.

Aurrekariak

1. Áncora plataformak (Donostiako kultura ondarea babesteko eta defendatzeko eratutako elkarte zibikoa) gure arretaren pean jarri du kultura ondarearen defentsan eskumenak dituzten administrazioek Donostiako Arte Ederren Jauregiari eman beharreko babesa.

Erreklamazioa aurkeztu duen plataformak azaldu du 2015eko urrian higiezinaren jabeak eraikinaren interes handieneko elementuetako bat eraitsi zuela; hain zuzen ere, kupula. Eskuratu ahal izan zuten informazioaren arabera, Donostiako Udaleko hirigintza zinegotziak agindu zuen elementu hori eraistea, 2015eko urriaren 8ko ebazpenaren bidez, eta aurretik Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren baimena izanda. Udalaren ebazpen horrek kupularen berehalako aurri egoera jasotzen zuen eta hori zela-eta agindu zuen kentzeko. Edonola ere, berreraikitze filologikoa ere agintzen zuen.

Erreklamazioa aurkeztu dutenek azaldu dute Udalaren jarduerak –Foru Aldundiak berretsitako jarduera– bidea eman duela kupularen multzo osoa estaltzeko sistema osorik eraisteko (hormigoizko lauzak, nerbioak eta estaldura), horretarako jarraitu gabe kultura ondarea babesteko araudian jasota dagoen prozedurari.

Adierazi dutenez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren 2015eko martxoaren 4ko aginduaren arabera, Arte Ederren Jauregia Euskadiko kultura ondarearen inbentario orokorrean sartuta dago, monumentuen kategorian.

Erreklamatzailleek behin eta berriz adierazi dute eraikin babestu honen kupularen andeatzea ez dela berria. Azaldu dutenez, lehenago ere salatu izan da, baina eskumenak dituzten administrazioek ez diete exijitu modu eraginkorrean higiezinaren jabeek mantentzeko duten betebeharra betetzeko (aipatzen dute Donostiako Udalaren txosten tekniko batean, 2014ko maiatzekoan, jasotzen zela esku hartu beharra).

Era berean, adierazten dute kupula osoa eta hango interes elementuak desegiteko lanek gairitu egiten dituztela egun hutsik dagoen eraikin batean pertsoneri eta ondasunei kalte egitea saihesteko hertsiki beharrezkoak direnak. Era berean, ulertzen dute orain arte ez dela neurri nahikorik agindu kupularen berrezartze filologikoa bermatzeko; izan ere, ez dago eperik finkatuta kupula eraikitze eta ez da berriz jartzeko proiekturik exijitu.

Haien ustez, jardun horrek erakusten du euskal erakundeek ez dutela modu egokian babestu Arte Ederren Jauregia, ez baitute modu aktiboan jokatu kontserbatzeko dituzten betebeharrak betetzen direla bermatzeko.

2. Kexa honi dagokion izapidetzea emateko helburuarekin, kultura ondarearen alde egitean eskumenak dituzten hiru administrazioetara jo genuen. Hartara, eraikin





honekin lotuta jarraitutako administrazio jarduketan informazioa eskatu zien Arartekoak Donostiako Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuari, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari.

Gure eskaerari erantzuteko, kexaren gaia den kasuan jarraitutako administrazio jarduketei buruzko informazio desberdina jaso dugu.

3. Donostiako Udalak hainbat dokumentu helarazi dizkigu, eta haiekin batera bidali ditu eztabaida eragin duen udal erabakiari eusteko oinarrian dauden udal txosten teknikoak. Kasu honetan, hauek izan dira:

- Hirigintzako zuzendariordearen txostena, 2014ko maiatzaren 14koa. Eraikina egoki kontserbatzeko beharrezkoak ziren lanak zehaztu eta erabakitzena bideratutako udal esku-hartzeen zerrenda bat jasotzen zuen txostenak. Kultura intereseko ondasun izendatzeko espedienteak abiarazi aurrekoak ziren esku-hartzeak eta, kasu horretan, udal plangintzan izendatuta zeukan babes erregimenaren araberakoak. Txostenak azaltzen zuen jabeek proiektu bat aurkeztu behar zutela –urte bateko epean–, eraikinaren egonkortasuna eta segurtasuna bermatzeko beharrezkoak ziren konponketa lan batzuk gauzatzeko. Eskatutako lanen zerrendak barnean hartzen zituen kupula eta estalkiko solairu armazoiak, hezetan handiak kalte eginda zegoela uste baitzen. Nolanahi ere, txostenak jasotzen zuen eraikina ez zegoela berehalako aurrirako egoeran, ez eta aurrirako ekonomikoko egoeran ere.
- 2015eko otsailaren 18ko txostenean, hirigintzako zuzendariordeak ohartarazi zuen ez zirela gauzatu 2014ko maiatzeko txostenean bilduta zeuden eraikinaren segurtasun eta babes jarduketak eta berriro nabarmendu zuen esku hartzeko betebeharra zutela.
- Hirigintzako zuzendariordearen 2015eko maiatzaren 11ko txostena. 2015eko martxoan kultura ondasun izendatu ondoren, txosten horretan Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin egindako bileraren berri eman zuen. Bilera horretan hainbat txosten eman zizkieten eta kezka azaldu zieten kupularen egoerarengatik, zati batean kolapsatzeko arriskua baitzuen eta urgentziazko zuzaritzea behar baitzuen. Halaber, adierazi zuten Eusko Jaurlaritzak 40.000 euroko partida bat zuela, kupula finkatzeko lanetara bideratu zitekeena. Udalaren txostena amaitzeko, 2014ko maiatzeko txostenean eskatutako lanen eskakizuna izapidetzeko premia ageri da (*“enfatisando el carácter de urgencia”*).
- 2015eko abuztuaren 4ko txostena. Aurreko txostenari jabeek egindako alegazioa jasotzen zuen, eta, beste kontu batzuen artean, adierazten zuen kupula desmuntatzeko premia, oso andeatuta baitzegoen. Era berean, txostenean jasotzen zen higiezinaren jabeek jakinarazi zirela kupulan pitzadura bat agertu zela eta horregatik eskatzen zirela Udalari kupula eraisteko baimena. Txostenak jasotzen duenez, kupularen goiko alde berehalako aurrirako egoeran zegoen eta, horrenbestez, erabaki egin behar zen.
- 2015eko irailaren 3ko udal txostena, kupulako elementuak eraisteko lizentzia eskaerari erantzuteko. Udal teknikariak errepikatu zuen kupula horren egoera larria eta berehalako aurrirako, utzita zegoelako eta mantentze-lanik ez



zitziolako egin. Hori zela-eta, teknikariak adierazi zuen, kultura ondasun gisa katalogoan eta inbentarioan sartutako eraikinaren zati moduan, elementu horren aurri partzialaren deklarazioa abiarazi beharko zela. Eraikina, ordea, ez zen aurri egoera globalean egongo.

Aldi berean, Donostiako Udalak, 2015eko irailaren 7ko ebazpenaren bidez, hitzartu du segurtasun arrazoiengatik hainbat lan gauzatzeko agindua, eta haien artean ez dira sartu kupula birgaitzeari dagozkionak.

- Amaitzeko, 2015eko urriaren 9ko udal ebazpena dago. Ebazpen horren bidez, jabeei agindu zitzaion eraikinaren kupula kentzeko eta, eperik finkatu gabe, kupula berreraikitzeko, zaharberitze filologikoaren arauari eta jarraibideei jarraituta egin beharrekoa. Ebazpen horrek erreferentzia egin zien 2015eko abuztuko eta iraileko udal txosten teknikoari, eta haietan aurri prozedura bat abiarazteko eskatzen zen hertsatuki. Inbentarioan bildutako eraikin bat izatean, 7/1990 Legean, uztailaren 3koan, Euskal Kultur Ondareari buruzkoan, eta 306/1998 Dekretuan, azaroaren 10ekoan, kalifikatutako eta zerrendatutako kultura ondasunen aurri egoeraren deklarazioari buruzkoan, jasotako prozedurari jarraitu zaio. Zehazki, Dekretuko 10. artikuluko berehalako aurri prozedura aipatzen da. Hartan jasotzen da higiezin lanak egiteko aukera, baldin eta aurreikusten bada kendu behar diren elementuak berriro jarriko direla.
4. Bere aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak hainbat dokumentu bidali dizkigu, eraikin honen babes erregimenarekin lotuta esku hartzea egokitu zaion zenbait administrazio espedienterekin lotura dutenak.
- Udalaren betetze edo exekuzio aginduen proposamenei buruzko informazioa gehitzen du Foru Aldundiko departamentuak (058/2015 espedientea). Donostiako Udalak 2015eko martxoan 2014ko maiatzeko eta 2015eko otsaileko udal txostenak bidali zizkion Kulturako foru departamentuari, behin Arte Ederren eraikina kultura ondarearen inbentarioan sartuta, udal txostenetan proposatutako lanen berri emateko, 7/1990 Legeak, uztailaren 3koan, Euskal Kultur Ondareari buruzkoan, 31. artikuluan jasotzen dituen baldintzetan. Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen komunikazioa ere gehitzen du (2015eko apirilaren 21eko data duena). Komunikazio horretan, kultura ondasun izendatzeko espedientean dauden azterlanen arabera, sailburuordeak honako hau adierazten du eraikinaren kupulaz: *“está en malas condiciones y requiere una intervención urgente”*. Horretarako, gogorarazten die esku hartu behar duten administrazioei aurrekontu partida bat dagoela, 40.000 eurokoa, eraikina sendotzeko helburua izan behar duena.

Dokumentu horietan oinarri hartuta, Kulturako foru departamentuak, maiatzaren 14ko 142/2015 zenbakiko ebazpenaren bidez, adierazi zuen udal txostenetan proposatzen ziren obrak –eta haien artean zeuden kupularen gaineko konpontze-lanak– egokiak zirela, nahiz eta gauzatu ahal izateko zehaztu egin behar ziren.

- Idatziz jasota dagoen bigarren izapideak 2015eko abuztuaren 4ko udal txostena aipatzen du, kupularen arrisku egoerari buruzkoa eta hura eraistea

planteatzen zuena. Foru Aldundiak txosten bat egin zuen, 2015eko abuztuaren 6an, eta hartan argitu zuen ez dela bera eraiste hori baimentzeko eskumena duen organoa, aurretik ondasunaren desafektazioa edo deseraginketa beharrezkoa baita. Horretarako, foru txostenak adierazten duenez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren aurretiazko baimena behar da. Kasu horretan, foru txostenak uste du Donostiako Udalak 7/1990 Legearen 36. artikuluan jasota dagoen aurreko prozedurari jarraitu behar diola.

Txosten horri erantzunez, 2015eko abuztuaren 13an, Donostiako Udaleko Hirigintza zuzendariak adierazi zion foru departamentuari ez zettorrela bat aurreko egoera deklaratzeko arautzen duen agindua aplikatzearekin. Horrenbestez, berriro eskatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiari eraikinaren kupularen egoerarekin lotutako neurri egokiak hartzeko, 7/1990 Legeak ematen dizkion eskumenen arabera.

Kulturako Foru Departamentuak haxe erantzun zuen 2015eko abuztuaren 18an, kontuan hartuta kupula eraikinaren oinarritzko elementua dela: *“no puede, a juicio de este Servicio de Patrimonio Histórico-Artístico, Archivos y Museos, procederse a su derribo sin su previa desafección parcial por el Gobierno Vasco”*. Hori aipatzen du 306/1998 Dekretuaren, azaroaren 10ekoaren, 12.2 artikulua, zati baten deseraginketa ahalbidetzen baitu.

Era berean, idatziz jasota dago, 2014ko abuztuaren 14an, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol ahaldunak gutuna bidali zuela Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailera, eskatzeko eraikinaren egonkortasuna bermatzeko gauzatu beharreko jarduketan gainean iritzia edo irizpidea emateko.

Idatzi horiei erantzunez, 2015eko abuztuaren 24an, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak argitu zien bi erakundeei zein irizpide duen ukituta dauden herri administrazioen jarduketak koordinatzeko. Hartara, ezarri zuen Donostiako Udalarik dagokiola bai eraikin osoaren bai haren zati baten berehalako aurreko egoera baloratzea, bai eta, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinatuta, ondasunen eta pertsonen segurtasuna bermatzen duten urgentziazko neurriak hartzea ere. Alde horretatik, ondokoa ezarri zuen: ***“la demolición de la cúpula sólo sería admisible en caso de no existir alternativas que garanticen su seguridad”***. Era berean, adierazi zuen neurri horiek hartzeak berekin ekarriko lukeela legezko aurreko egoera deklaratzeko espedientearen abiaraztea. Halaber, gogoratu zuen, 306/1998 Dekretuan oinarrituta, *“konpontzeko eta sendotzeko”* lanak finantzatzea ondasunaren titularrari eta Foru Aldundiari egozkituko zaiela.

- Bere aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak txosten tekniko bat egiteko agindu zuen (IDOM txostena), hartara, eraikinaren eta, bereziki, kupularen benetako egoeraren berri izateko. 2015eko urriaren 2an amaitu zen txostena.

Alde batetik, IDOM txosten horrek kupularen kontserbatze egoeraren eta ur iragazketen arteko harremana azaltzen du: *“se observan en la estructura de la cúpula síntomas de que ésta se halla sometida a filtraciones de agua continuada debido a la falta de mantenimiento de la impermeabilización de su cubierta. Asimismo cabe mencionar que en los últimos años (unos 7 años) se desmontó el remate superior de la cúpula, hecho que probablemente haya*

ayudado también a las citadas entradas de agua". Beste arrazoi batzuen artean hormigoia andeatu izana eta beste akats batzuk ere aipatzen ditu.

Beste alde batetik, IDOM txostenak, kupula kolapsatzea saihesteko urgentziazko esku-hartze proposamen moduan, bi aukera hauek planteatzen ditu: *"En el caso de la cúpula, el grado de degradación que presenta la estructura es tan avanzado, que imposibilita llevar a cabo labores de reparación sobre la misma, ya que una simple limpieza superficial con el objeto de sanear la armadura conllevaría la desaparición de la sección de hormigón completa. Por otro lado, su resistencia actual es tan baja, que no puede cumplir con los mínimos requisitos de seguridad exigibles su cometido de estructura portante. La situación en la que se encuentra la cúpula requiere una actuación urgente para evitar su colapso, **bien desmontando la cúpula para volver a rehacerla en idénticas condiciones, bien creando una estructura en paralelo que evite su desmoronamiento**".* Egin daitezkeen bi jarduketa horiek zehazten ditu txostenak: edo kupula desmuntatu eta berriro eraikitzea (320.000 €), edo kupulari eustea, paraleloan egitura bat eginda (150.000 €).

- Azkenik, Aldundiak informazioa ematen du 2015eko irailaren 3ko udal txostenari dagokionez jarraitutako izapideari buruz (kupularen berehalako aurrigoera berretsi eta elementu horren aurrigo partziala deklaratzeko abiarazteko eskatzea), bai eta 2015eko urriaren 8ko Etxebizitza eta Hirigintzako zinegotziaren ebazpenari buruz ere (eraikineko kupula kentzeko eta kupularen berreraikitze filologikoa egiteko agindua).

Ondare Historiko Artistikoaren, Artxiboen eta Museoen Zerbitzuak 2015eko urriaren 15ean egindako txostenaren amaieran kupula kentzea eta berreraikitzea agintzen duen udal ebazpena 306/1998 Dekretuaren 10.2 artikulura egokitzen da. Hartara, 175/2015 ebazpena onartzen da, Kulturako zuzendari orokorrarena, 2015eko urriaren 15ekoa, udal ebazpen hori berresteko eta baldintzak ezartzeko, bai estalkiko irazgaitasunerako, bai eta kupulako elementuak berriro jartzeko ere. Erabaki horrek, udal txosten teknikoak eta IDOM txostena ikusirik, hauxe justifikatzen du: *"los informes señalados concluyen en la necesidad de adoptar medidas urgentes para la retirada de los elementos que amenazan ruina y peligro para las personas y para el propio inmueble".*

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen zuzendariak 2015eko urriaren 15ean egin zuen idatzia gehitzen du, 2015eko urriaren 8ko udal ebazpenari buruzkoa. Idatzi horretan adierazten du bat datorrela egindako txostenekin eta kupularen egoerari buruzko azterlanekin, zeinetan ondorio hau ateratzen den: *"la necesidad de retirar la cúpula y reponerla como alternativa necesaria para mantener la integridad del edificio protegido".*

Ondorengo ebazpen batean (173/2015 ebazpena, Kulturako zuzendari orokorrarena, 2015eko urriaren 26koa), Aldundiak kupula eraisteko proiektua aztertzen du. Ebazpen horretan, hain zuzen, exijitzen da eraisteko lanak egiten direnean sistema bat jarri behar dela euri urak eraikinaren kanpoaldera bideratzeko.

5. Amaitzeko, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak idatzi bat bidali digu. Hartan, gogora ekartzen du, 2015eko martxoaren 4ko

aginduaz geroztik, Arte Ederren Jauregia kultura ondasun gisa sartuta dagoela, monumentuen kategorian, Euskadiko kultura ondarearen inbentario orokorrean. Hartara, egun horrez geroztik, 7/1990 Legearen 20.1 artikuluan jasota dagoen kontserbatze betebeharra bete behar da, haren osotasuna segurtatu eta galtzea, suntsitzea edo andeatzea ekiditeko. Aipatzen duen beste ondorio bat da, ondasun edo pertsonentzat berehalako arriskua balego, aurri egoera deklaratzeko eskumena duen agintariak agindu beharko dituela gerta litezkeen kalteak saihesteko beharrezkoak diren neurriak. Ezinbestekak bultzaturik lanak egin beharko balira, lan haiek aurreikusi beharko lukete kendutako elementuak berriro jartzea.

Alde horretatik, Donostiako Udalak ebazpen bat eman zuen higiezinaren jabea den enpresari agintzeko kupula kendu eta berreraikitzeke, pertsonen eta ondasunen segurtasunerako mehatxua baitzen. *“Esta resolución municipal fue ratificada por otra resolución de la Diputación Foral de Gipuzkoa con fecha de 15 de octubre de 2015. La valoración de ruina inminente se basó en informes realizados por las Administraciones competentes (el Ayuntamiento y la Diputación Foral), ambos coincidentes”.*

Dena den, gogorarazten die, biei ala biei, 7/1990 Legeak, uztailaren 3koak, 35.2 artikuluan, ezartzen duela kalifikatuta edo inbentarioan sartuta (Arte Ederren Jauregiaren kasua) dauden ondasunen jabeek ez badituzte betetzen 20. artikuluan jasotako betebeharrak, dagokion foru aldundiak, ofizioz edo Eusko Jaurlaritzan kultura gaien eskumenak dituen sailaren eskariz, exijitu ahal izango diela betetzeko epe egoki batean eta, bestela, agindu ahal izango duela exekuzio subsidiarioa jabearen kontura. Horrez gain, Foru Aldundiak zuzenean egin ahal izango ditu ondasunen osotasuna bermatzeko ezin geroratzuzkoak diren beharrezko lanak. Zuzenean gauzatzea ez da eragozpena haren kostua jabeak ordaindu behar izateko, hala egitea egokia bada. *“Aurrekoa kontuan hartuta, Euskal Kultur Ondarearen legearen 35. Artikuluan ezarritako legezko agindua betetzea eskatzeko eskutitz bat bidali zion Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoako Foru Aldundiari, hots, Arte Ederretako jauregiaren kupula ahalik eta azkarren birjartzeko. Halaber, eta espedientean dauden txosten teknikoak kontuan hartuta, estalkian ur-filtrazioaren arazoak eta estalkia bera finkatzeko arazoak konpontzea eskatu zen; baita ur-filtrazioek eragindako zonaldeetan hormigoia konpontzeko ere”.* Txostenak berarekin darama Gipuzkoako Foru Aldundira 2015eko azaroaren 23an bidalitako idazki ofizialaren kopia bat.

6. Ondoren erreklamazioa aurkeztu duten pertsonak adierazi dute, eskainitako informazioa alde batera utzirik, ez dela ageri lanik hasi denik eraitsi zen kupula berriro jartzeko eta ez dela beste neurririk hartu, kultura ondarearen babesari dagozkion administratiboengatik.

Helarazi diguten beste dokumentu bat da 2015eko urriaren 8ko ebazpenaren aurka Donostiako Udalarari aurkeztutako berraztertzeke errekurtsioa. Hartan, eskatzen dute berrikusteko eta exekuzio agindu berri bat emateko, kupula benetan berreraikiko dela egoki bermatuko duena.

Era berean, Elkarteak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu du, Kulturako zuzendari orokorraren 157/2015 ebazpenaren aurkakoa (2015eko urriaren 15ekoa), Donostiako Udalak emandako ebazpena berresten zuenaren kontrakoa. 2016ko urtarrilaren 27an, departamentuko foru ahaldunak agindu bat eman du, eta



haren bidez ez da onartzen errekurtsio hori, legitimazio aktiborik ez dagoelako, 306/1998 Dekretuan jasota dagoenaren arabera, ez dutelako interesdun izaera.

Aurrekari horiek eta esku hartu behar duten administrazioek bidalitako informazioa ikusirik, egoki jo dugu ebazpen hau egitea, gogoeta hauen arabera:

Gogoetak

1. **Kexaren xedea.** Ebazpen honen xedea da Donostiako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren jarduna aztertzea, Arte Ederren Jauregiko kupula eraisteko hitzartutako aginduari dagokionez, Euskadiko kultura ondarearen inbentario orokorrean sartuta dagoen monumentua den arren.

Era berean, Elkarreak planteatzen du kultura ondarea babesteko eskumenak dituzten administrazioek ez dituztela hartu, orain arte behintzat, elementu horren berrezartze filologikorako administrazio neurri guztiak, ez eta monumentu hau kontserbatzeko beharrezkoak diren gainerako betebeharrak betetzeko neurriak ere.

2. **Arte Ederren Jauregia eta haren babes erregimena.** Aurrekarietan aipatu den moduan, 2015eko martxoaren 4an eman zen aginduaren bidez, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko ondare arkitektonikoaren inbentarioan sartu du eraikin hau.

Arte Ederren Jauregia eraikin bereziki esanguratsua da, duen kokalekuagatik eta duen osaerarengatik, Cortázarren zabalgunerako ate gisa. Ramón Cortázar arkitektoaren lana da proiektua, eta haren lanaren adibide berezizat jotzen da, bai estetikari dagokionez, bai eraikitzeari dagokionez ere. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren deskribapenean jasotzen denez, eraikinean nabarmendu behar da kupula bidez azkendu izana, bi kaleren adarkaduraren parean kokatuta. Eraikinean gehien nabarmentzen den elementua da kupula hori, eta Arte Ederren Jauregia *"ikono monumental bihurtu zuen, ez Amarako zabalgunekoa bakarrik Donostiakoa baino"*.

Inbentarioan sartzeak berekin dakar 7/1990 Legean, uztailaren 3koan, Euskal Kultur Ondareari buruzkoan, araututako berariazko kontserbatze erregimena. 2015eko martxoaren 4ko aginduak birgaitzeko baimendu daitekeen esku-hartze mota ezartzen du; kasu honetan, 317/2002 Dekretuak, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoak, definitzen duen B motako zaharberritze kontserbatzailea. Era berean, agindu horretan deklaritzen dira interes bereziaren xede diren eraikineko elementuak. Besteak beste, barnean hartzen dituzte kanpoko fatxadaren multzoa eta estalkiaren multzoa estaltzeko sistema. Alde horretatik, baimendutako eraikitze esku-hartze guztiak bideratu behar dira elementu horiek kontserbatzera, eta gauzatu beharreko lan guztiek eraikinaren elementu tipologikoak, formalak eta egiturazkoak errespetatu behar dituzte.

Horrek esan nahi du inbentarioan sartutako eraikinean jabeak egin nahi duen edozein lanek edo esku-hartzek eskatzen duela, dagokion hirigintza lizentziarekin batera, aurretik Foru Aldundiari jakinaraztea, gutxienez gauzatu baino hilabete lehenago (7/1990 Legearen 31. artikulua).



3. **Zerrendatutako eraikina kontserbatzeko betebeharra, haren osotasuna bermatzeko, eta Foru Aldundiaren betetze aginduak, betebeharrak betetzen direla bermatzeko.** Eraikina babesteko erregimena onartu ondoren, kontserbatzeko betebeharrak kontuan hartu behar dituzte bai hirigintzaren arloko legeriaren aginduak –kasu honetan, 2/2006 Legearen, ekainaren 30ekoaren, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 199. artikulua– bai eta, berariaz, kultura ondarea babesteko araudia. Hori da 7/1990 Legearen 20. artikularen kasua, jasotzen baitu inbentarioan sartutako kultura ondasunen jabeak behartuta daudela *“behar bezala kontserbatzera, zaintzera eta babestera, haien osotasuna segurtatzeko eta galtzea, suntsitzea edo andeatzea saihesteko”*.

Jabeak ez baditu betetzen kontserbatzeko eta zaintzeko betebeharrak horiek, ondarea babesteko araudiak berariazko prozedura batzuk aurreikusten ditu.

7/1990 Legearen 35.2 artikulua ahalmena ematen dio Foru Aldundiko organo eskudunari, ofizioz edo Eusko Jaurlaritzan kulturaren arloan eskumenak dituen sailaren eskariz, jabeari exijitzeko eraikinaren osotasuna segurtatzeko eta galtzea, suntsitzea edo andeatzea saihesteko beharrezkoak diren lanak gauzatzeko *“epe egoki bat”*. Aurreikusitako epea igarotzeak ahalmena ematen dio Foru Aldundiko organoari exekuzio subsidiarioa agintzeko, jabearen kontura.

Zentzu horretan bertan, 7/1990 Legearen 35.1 artikulua jasotzen du, kalifikatutako edo zerrendatutako kultura ondasun bat kontserbatzeko konponketa lanak egitea beharrezkoa denean, edo *“berehalako arriskua”* badago haren gainean, jabeak egoera hori salatu beharko duela dagokion foru aldundian, hark har ditzan egokiak diren neurriak.

Foru Aldundiak ere zuzenean egin ahal izango ditu ondasunaren osotasuna bermatzeko ezin geroratzekoak diren beharrezko lanak. Zuzenean gauzatzea ez da eragozpena haren kostua jabeak ordaindu behar izateko, hala egitea egokia bada.

Xedapen horrek zehazten du euskal legeriak Foru Aldundiko organoei egozten dien eskumen xedaezina, exekuzio aginduak emateko, jabeei eraikin babestuen kontserbatze, zaintze eta birgaitze betebeharrak betearaztea exijitzera bideratutakoak. Eraikinaren osotasuna segurtatzera eta galtzea, suntsitzea edo andeatzea saihestera bideratutako lanen edukia ezarri behar dute agindu horiek. Gauzatzeko epe bati lotuta egon behar dute lan horiek, eta, ez bada jarduten, exekuzio subsidiario bati lotuta. Era berean, berehalako arriskua badago, edo ofizioz edo jabearen eskariz, Foru Aldundiko organoak zuzenean hitzar ditzake eraikinaren osotasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak.

Kulturaren arloko administrazioaren berariazko exekuzio agindu horien modu osagarrian, Euskadiko hirigintza legeriak –lehenago aipatu den 2/2006 Legearen, ekainaren 30ekoaren, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 199. artikuluan– arautzen du jabeek eraikinak *“segurtasun, osasun, begirune eta apaintasun publikoko”* egoera onean mantentzeko betebeharra dutela. Kasu honetan, udalak dira *“andeatuta dauden edo benetako erabilerarako baldintza kaskarretan dauden”* eraikinak konpontzeko, kontserbatzeko eta birgaitzeko lanak gauzatzeko aginduak eman behar dituzten organoak.

4. **Aurria deklaratzeko eta kontserbatzeko betebeharraren mugak.** Kultura ondarea babesteko legeriaren kasuan eta hirigintzako legeriaren kasuan, aurraren legezko deklarazioak amaituko du kontserbatzeko eta birgaitzeko betebeharra.

Hirigintzako kontserbatze lanak jabeen kontura gauzatuko dira, dagokien kontserbatze betebeharraren mugan badaude –jarduketa bakartuetan, eraikina berriz jartzeko kostuaren %60 arte–, eta agintzen duen erakundearen funtsen kontura egingo dira, hori gainditzen badute, interes orokorrerako hobekuntzak lortzeko.

Baldintza horietan, aukera dago katalogoan sartutako edo babestutako eraikinen aurri egoera deklaratzeko, baina horretarako berriazko prozedura bati jarraitu behar zaio eta hartan kulturaren arloko administrazioak esku hartu behar du. 2/2006 Legearen 201.4 artikulua jasotzen du kulturaren arloko legeriaren arabera kalifikatuta edo zerrendatuta dauden higiezin aurri deklarazioa eraentzen dutela kultura ondarea babesteko legeriaren xedapenek. Kasu honetan, 7/1990 Legearen 36. artikulua, azaroaren 10eko 306/1998 Dekretuko xedapenekin batera, ezartzen du kultura ondasunen aurri egoera deklaratzeko prozedura. 306/1998 Dekretuaren 1.2 artikulua ondokoa aipatzen du: *“Kalifikatutako edo zerrendatutako kultur ondasun baten aurri egoera deklaratzeko izatezko egoera baten egiaztapenetik eta diru-laguntza gabeziatik dator. Aurri egoera, dena den, ez da bateraezina kultur ondasun batek, bere balio kulturalaren arabera, merezi duen babes eskakizunarekin”*.

Prozedura horrek jasotzen du behar den koordinazioa, prozeduran esku hartzen duten administrazioei (Udala, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundia) exijitzen ahal zaiena, eta kalifikatutako eta zerrendatutako ondasunen aurri egoeraren legezko kasuen zehaztea (onertu ezinezko hondamen egoera eta kalteen konponketarako kostua, egungo balioaren %50etik gorakoa, higiezinaren balio-galera gabe eta laguntzak kontuan hartu gabe).

36. artikulua jasotzen du ezin izango direla kalifikatutako eta zerrendatutako kultura ondasunak eraitsi, aurretik aurria deklaratu gabe eta dagokion foru aldundiaren berriazko baimena eduki gabe. Nolanahi ere den, kalifikatutako kultura ondasunen deseraginketari buruzko aurretiazko baimena eman behar du Eusko Jaurlaritzak, eta horretarako aginduzko eta nahitaezko txostena eskatu beharko zaio kontsulta organoari. Aurri espediente hori udal administrazioak hasi behar du, nahiz eta Foru Aldundiari jakinarazi behar dion (eta horrek txostena egin behar duen horren gainean).

Garrantzitsua da nabarmentzea aurri deklarazioa 7/1990 Legearen 20. edo 35. artikuluetan jasota dauden betebeharrak ez betetzearen ondoriozkoa bada ezin izango dela eraistea baimendu eta exijitu beharko dela kontserbatzea, jabearen kontura.

5. **Berehalako aurria.** Dena den, 36. artikuluko 5. paragrafoan, erresalbuzko neurri bat dago aurreikusita ondasun edo pertsonentzat *“berehalako arriskua”* badago. Neurri horrek bidea ematen dio udalari kalteak saihesteko beharrezkoak diren esku-hartzeak agintzeko. Are gehiago, *“ezinbestek bultzaturik”* lanak agintzeko aukera jasotzen du. Lan horiek, edozein kasutan, aurreikusi beharko dute kendutako elementuak berriro jartzea.



Berehalako aurria deklaratzeko prozedura 306/1998 Dekretuaren 10. eta 11. artikuluek garatu dute. Ondasun edo pertsonentzat berehalako arrisku egoera bat ikusten bada, udalak ikuskatze bisita bat egingo du, kalteak saihesteko eraikinak behar dituen eta urgentziaz gauzatu behar diren salbuespenezko neurrien gaineko informazioa emateko udal teknikariek.

“Para evitar daños a personas y bienes”, beharrezkoak diren neurriak hartzeko aginduko du udalak eta berehala emango dio horren berri Foru Aldundiari. *“Ezinbestek bultzaturik”* jardun beharreko kasuetan, udalak onar dezake lanak egitea, baldin eta aurreikusten bada kenduko diren elementuak berriro jarriko direla. Ezinbestek bultzaturiko lan horien kasuan, Foru Aldundian eskumena duen organoari jakinarazi behar zaio, eta hark hogeita lau orduko epea du aurreikusitako lanak aldarazteko edo egoki jotzen dituen beste batzuekin ordeztzeko agintzeko. Epe hori igarotzen bada aldaketarik jakinarazi gabe, udalak agindu egingo du babestutako kultura ondasunean kalteak ekiditeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

Eraikinen berehalako aurri kasuan erresalbuazko neurrien edukiak modu egokian justifikatu behar ditu saihestu nahi diren kalteak eta, edonola ere, erabaki hori eragin duen ezinbestea.

Kalteei aurrea hartzeko beharrezko neurriek berekin dakarte, nagusiki, eraikina hutsaraztea, inguratzea, fatxadak zurkaiztea, eta pertsonen igarotzea eta ibilgailuen zirkulazioa desbideratzea. Eraikinaren andeatze fisikoak segurtasunari eragiten badio pertsonentzako egungo eta benetako arriskua egiaztatzeko moduan, aurri deklarazioak berarekin eraman dezake eraikin osoa edo haren zati bat eraistea. Garrantzitsua da aipatzea 2/2006 Legearen 202. artikulua, hirigintzako aurri kasuan, aurreikusten duela salbuespen moduan eraistea agintzeko kasua, kalte handiagoak eragozteko ezinbestekoa denean eta, edozein kasutan, *“ez bada eraikin katalogatua edo babestua”*.

Ezinbesteko kasutzat hartzea ez da adierazpen erretoriko hutsa. Auzitegi Gorenak –2001eko abenduaren 13ko epaian (RJ 2002/5183)– adierazten du kasu hori egiaztatu ahal izateko funtsezko bi baldintzak gertatu behar dutela batera: *“determinación irresistible y exterioridad; indeterminación absolutamente irresistible, en primer lugar, es decir aun en el supuesto de que hubiera podido ser prevista; exterioridad, en segundo lugar, lo que es tanto como decir que la causa productora de la lesión ha de ser ajena al servicio y al riesgo que le es propio. En este sentido, por ejemplo, la STS de 23 de mayo de 1986: «Aquellos hechos que, aun siendo previsibles, sean, sin embargo, inevitables, insuperables e irresistibles, siempre que la causa que los motive sea extraña e independiente del sujeto obligado»*.

Dena dela, behin hitzartuta erresalbuazko neurri horiek, udal administrazioak aurriaren izapidetze arrunta jarraitu behar du, besteak beste, deseraginketa prozedura daramana berarekin.

- 6. Arte Ederren Jauregia eta bertako kupula kontserbatzeko lanak betetzea agintzeko udal txostenak direla-eta.** Kasu honetan, kupula eraisteko aukera eman duen udal txostena Donostiako Udalaren beraren aurretiazko jarduketa batzuetan aipatzen da, kultura intereseko ondasun izendatu aurretik eraikin hau kontserbatzeko hirigintza betebeharrak betetzea exijitzera bideratutakoak.





Aipatutako udal txostenek (2014ko maiatzekoa, 2015eko otsailekoa eta maiatzekoa) agerian uzten dituzte Arte Ederren eraikinaren egonkortasuna eta segurtasuna bermatzeko egin behar ziren konponketa jarduketak. Lan horien artean, berariaz aipatzen zen kupula birgaitzeko lanak egitekoak agindu behar izatea. Udal txosten horiek, aurreko beste kasu batzuetan bezala, denboran eta moduan bukatu beharko zuten higiezinaren jabeei zuzendutako exekuzio aginduak emanda. Alabaina, eta udal txostenak adierazten duen urgentziazko izaera gorabehera, eskumena zuen udal organoak ez zuen behar bezala ebatzi administrazio izapide hori eta, hortaz, ez ziren eman kupulari eusteko lanak betetzeko aginduak. (Salbuespen gisa aipatu behar da 2015eko irailaren 7ko udal ebazpena, hartan konponketa lan batzuk agindu baitziren eta haietan kupula kanpoan utzi baitzen).

Hala ere, aipatu behar da, 2015eko martxoaren 4ko agindua argitaratu zenetik (2015eko martxoaren 6ko EHAA), monumentu gisa Arte Ederren eraikinak duen babes erregimenak berarekin dakarrela 7/1990 Legean jasotako prozedurak zuzenean aplikatzea, jabeei exijitzeko kontserbatzeko betebeharrak betetzeko.

Horrek esan nahi du, egun horrez geroztik, Foru Aldundiko foru organoa dela higiezina kontserbatzeko eta haren osotasuna segurtatzeko beharrezkoak diren lanak betetzea agintzen duen espedientea izapidetzeko eskumena duena.

Horretarako, eraikin babestuetan betebeharrak betetzen direla bermatzeko Arte Ederren eraikinean eskatutako edozein esku-hartze 7/1990 Legearen 35. artikuluan jasotako prozedurei egokitu behar zaie. Horrek barnean hartzen du zerrendatutako eraikinen gaineko berehalako aurri egoeran jardutea, ezinbestean berarekin daramana Gipuzkoako Foru Aldundian eskumena duen organoaren esku-hartzea, hirigintzako exekuzio aginduei dagokienez, udal eskumena ordeztzen duena.

- 7. Udalaren aurri espedientea dela-eta, kupula kentzea agintzeko hitzartutakoa.** Kupularen egoera txarraren ondorioz, higiezinaren jabeek berehalako arrisku egoera salatu eta eraikinaren funtsezko elementu hori eraisteko baimena eskatu zuten. Udalak, Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari prozeduraren gaineko kontsulta egin eta gero, aurri espediente bat abiaraztea erabaki zuen, 7/1990 Legearen 36. artikuluko xedapenetan oinarrituta.

Lehenago azaldu den moduan, kupula eraisteko erresalbuzko neurria onartzeak – ondoren berriro jartzeko betebeharrarekin batera– eskatzen du Eusko Jaurlaritzak elementu horren zati baten deseraginketa egitea.

Alabaina, txosten horretan agindu da kupularen eraiste partziala, erresalbuzko neurri moduan, berehalako arriskua frogatuta zegoela ulertzean.

Gure ustez, erresalbuzko neurri hori salbuespenezkoa da eta soil-soilik hartu behar da aintzat behar bezala justifikatuta badago administrazio espedienteetan seigarren atalean aipatutako baldintzak betetzen direla.

Bidalitako espedienteetan eta aurrekarietan aipatutako txostenetan, ordea, ez da aipatzen neurri hori hartzeko udal eta foru administrazioa gaituko lukeen ezinbestea justifikatzen duen ezer. IDOM txostenak aipatzen du, kupularen



andeatzeak eskatzen badu ere kolapsatzea saihestuko duen urgentziazko esku hartzea, haren arrazoiak ez direla ezin gaindituzkoak, bitxiak edo haren mantentzearen arduradunari ez dagozkionak; izan ere, aurretik ezagunak diren arrazoiaren ondoriozkoak baitira, esate baterako, estalkian mantentze-lanak ez egiteagatik gertatzen diren iragazketen edo hormigoia andeatuta egotearen ondoriozkoak. IDOM txosten hori irakurtzean, edo gutxienez 2014ko maiatzaz geroztik kupulan esku hartzeko premia adierazten duten udal txostenak irakurtzean, ez da saihestu behar prozedura honen egokitasunari buruzko analisisian eraikina kontserbatzeko betebeharrak bete ez izana, bete balira berehalako arrisku edo kolapsatzeko arrisku hori murriztu egingo baitzen.

Era berean, garrantzitsua da aipatzea urgentziazko neurri hori baimendu dela kontuan hartu gabe pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatuko zuten beste aukera batzuk. Hau da, kupula eraistea soil-soilik onar zitekeen, kultura administrazioaren irizpidearen arabera, segurtasuna bermatzen zuten beste aukera batzuk ez bazeuden (Eusko Jaurlaritzaren txostena, 2015eko abuztuaren 24koa). IDOM txostena irakurtzean, ordea, ikusten da bi aukera zeudela: edo kupula desmuntatzea, edo egitura bat sortzea paraleloan, kupula desegitea saihesteko. Hori dela-eta, planteatu daiteke bigarren aukera hori ez dela behar bezala sartu eta baloratu, ez Foru Aldundiaren 2015eko urriaren 15eko txosten teknikoan, ez eta ondorengo 157/2015 ebazpenean.

Are gehiago, hirigintzaren arloko legeriak, 2/2006 Legearen 202. artikuluan berehalako aurria arautzean, eragotzi egiten du, Arte Ederren jauregiak bezala, nolabaiteko babes erregimenen bat duten eraikinen eraiste partziala edo osoa agintzea.

Edonola ere, erresalbuzko neurrien ondoren, ez dago idatziz jasota aurri espediente arruntean jarraitutasunik izan denik, babestutako ondasunaren deseraginketa aukera edo ez erabakitsera eraman beharko duena.

Hitz batean, esku hartu duten administrazioek higiezinaren kontserbatze egoeraren balorazioa egin dute, eta, 7/1990 Legearen 35. artikulua xedapenen arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren organo eskudunaren agindu batek amaitu beharko zuen balorazio hori; onartutako babes erregimenaren baldintzetan kupula konpontzeko lanak gauzatzeko agindua, zehazki. Alabaina, esku hartu duten administrazioek prozedura "desegoki" bati jarraitu diote eta horrek aukera eman du, elementu babestu bat eraistea hitzartzeko eragin hutsetarako, aurri espediente bat abiarazteko. Aurri espediente horrek ez du jarraipena izan bere hurrengo fasean, ondasunaren deseraginketa osoa edo partziala ekarriko lukeenean.

- 8. Kupulatik kendu diren elementuak berriro jartzea benetan bermatzeko aurreikusitako neurriak direla-eta.** Garrantzitsua da aipatzea, udalaren berrezartze agindua edo Eusko Jaurlaritzak Aldundiko Kultura Departamentuari egindako eskakizuna gorabehera, hiru hilabete igaro direla kupula kendu zenetik eta ez dela berriz jarri estalkiko elementu hori.

Berriro aipatu behar dugu eraitsitako elementua berehala lehengoratzeko betebeharra dagoela. Udal aginduak eta foru baimenak barnean hartu beharko zituzten lehengoratzeko epeak.



Kasu honetan, bildutako gogoetekin eta era berean Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak egindako eskakizunarekin koherente izanez, Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskudunak berehala abiarazi beharko luke espediente bat, epe laburrean egitea agintzeko eta ohartarazteko, ez badu hala egiten, exekuzio subsidiarioa gauzatuko dela.

9. **Administrazio prozedura antolatzea bultzatzeko betebeharra, administrazio koordinazioa.** Azkenik, eta oro har, gogora ekarri behar da abiarazitako administrazio espedienteak ez ebatzea 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, jasotzen dituen xedapenen kontrakoa dela.

Administrazio izapide batzuk egoteko eta espedienteak ebatzeko bermea herritarrek administrazio ona izateko duten eskubidearen zati da, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 41. artikulua eratzten duen eskubidea (Lisboako Itunak ekarri zuen gutun hori).

Administrazio onerako eskubide horren barnean, izapide guztiak guztiz betetzea aipatu ahal izango genuke, ofizioz eta laster bultzatzea, eta, bereziki, hasitako prozedura guztietan berariazko ebazpena emateko eta planteatutako aferei arrazoizko denbora epe batean erantzuteko betebeharra.

Alde batetik, agerian jarri behar dugu administrazio dokumentu batzuk administrazio prozedurako xedapenetara bideratzeko zailtasuna. Administrazio organoek egindako txostenek eta idatziek, alde batera utzirik administrazioen arteko koordinazioa eta lankidetzatza bilatzea, legerian berariaz bildutako prozedurei erantzun behar diete. Bestela, administrazio izapide horiek (balorazioak, iritziak edo desadostasunak idatzien edo jakinarazpenen bidez) ez lirateke herri administrazioek jarraitu behar dituzten administrazio onaren printzipioen araberrakoak izango.

Halaber, garrantzitsua da aipatzea koordinazio egokia behar dela ondarearen babesean batera gertatzen diren eskumenak dituzten administrazio maila desberdinen artean. 7/1990 Legeak, 3. artikuluan, agindu hau jasotzen du: *"Herri agintariak, beren egiteko eta aginpideetan arituaz, euskal kultur ondareak beti ere bere osoan iraun dezan arduratuko dira eta horren babesa, zabalkundea eta hori aberastea sustatuko dute, oraingo eta geroko belaunaldiak hori ezagutu, horretaz jabetu eta gozatzerik izateko aukerak segurtatzeko behar hainbateko eraginkortasunez jokatuz"*. Horrek dakar, hainbat kasutan, besteak beste Arte Ederren Jauregiaren kasuan, aurrekarietan aipatutako txostenetan jasotako desadostasunak (7/1990 Legearen aginduak betetzeko mekanismo eraginkorrenak zein izan behar duen erabakitzeak eragindakoak) gogoetarako elementua izan behar duela, modu arinagoan eta koordinatuagoan jarduteko bidea emango duten akordio formulak bilatzeko.

Horrez gain, gogora ekarri behar da, 7/1990 Legearen 3. artikulua jasotzen duen herri jardunean oinarrituta, edozein pertsonak duela legezketasuna kultura ondarearen defentsan aritzeko Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen aurrean eta, egokia bada, eskumenak dituzten auzitegiatan aritzeko, 7/1990 Legean xedatuta dagoena betetzea exijitzeko.





Kexan eta eragindako administrazioek bidalitako informazioan agertzen diren datuak kontuan hartuta, baita egindako hausnarketak ere, ondorio hauek helarazten dizkizugu:

Ondorioak

- Udalaren jardunaren kasuan –Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Departamentuak berretsitakoa–, esku hartu duten administrazioek prozedura “desegokiari” jarraitu diote eta horrek aukera eman du, elementu babestu bat eraistea hitzartzeko eragin hutsetarako, aurri espediente bat abiarazteko.

Espediente horretan ez dago idatziz jasota udal eta foru administrazioak neurri hori hartzeko gaituko lituzkeen ezinbestearen justifikaziorik. Era berean, urgentziatzeko neurri hori baimendu da kontuan hartu gabe pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatuko zuten beste aukera batzuk; IDOM txostenean jasota zeudenak, zehazki.

Horrez gain, Donostiako Udalak ez du jarraitu ofizioz bultzatzen abiarazitako aurri espedientearen izapidetzea, 306/1998 Dekretuaren xedapenen arabera.

- Arte Ederren Jauregiaren kasuan, erakunde honek uste du esku hartu duten administrazioen jarduna (higiezinaren kontserbatze egoeraren balorazioa egin dute) 7/1990 Legearen, uztailaren 3koaren, Euskal Kultur Ondareari buruzkoaren, 35. artikulua xedapenen arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren organo eskudunaren agindu batek amaitu beharko zuela; onartutako babes erregimenaren baldintzetan kupula konpontzeko lanak gauzatzeko agindua, zehazki.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak, Donostiako Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin batera, interes zuzena duten aldeen arteko eztabaidarako mahai egonkor bat sustatu behar du (Áncora elkarte, higiezinaren jabeak eta interesa izan dezaketen beste batzuk). Hain zuzen ere, Arte Ederren Jauregiak ordezkatzeko duen Euskadiko kultura ondarearen osotasuna babesteko, administrazioen artean egokia den koordinazioa lortzeko xedea eduki behar du. Horretarako, interesgarria da ekintza plan bat ezartzea, babes bermatuko duena, finkatuta dagoen babes erregimenaren arabera, eta haren balioa nabarmentzeko eta galtzea, suntsitzea edo andeatzea saihestuko duen finantzaketa eta lehentasunen programa bat barnean hartzeko aukera emango duena.

